



BARREN  
TOKIKOM

# Estreinako ehun miliakoan, podiuma







- Zetazko Jacquard biskosa
- 300 gr Zeta
- 300 gr Lihoa
- Latex Naturala Comfort
- 1000 Microcoils 3D Spacer
- Cool Spring 900 suspentsioa
- 5 atseden gune
- 1000 Microcoils 3D Spacer
- Latex Naturala Comfort
- 300 gr Mohair Artile
- 300gr zeta
- Zetazko Jacquard biskosa

Proba ezazu koltxoi natural batean lo egitea zer den eta bizi ezazu esperientzia lasaigarri bat. Zatoz probatzera gure dendara!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)

**UE43NU7025KX  
SAMSUNG LED TELEBISTA**



**399 €**

4K - Smart TV - HDR 10+  
1300HZ PQI - USB grabagailua  
2HDMI

**KG36NX14A SIEMENS  
COMBI HOZKAILUA**



**869 €**

HyperFresh OP kaxoia / A+++ / No frost  
Hatz marka kontrako altzairu herdoilgaitza  
324 litroko edukiera - 186 zentimetroko altuera

**RH-8971 ROWENTA  
XURGAGAILUA**



**184,90 €**

Kablenk gabeko erratz-xurgagailua - 25,2 V,  
DELTA xurgagailu-burua, abiadura handiko,  
LED argidun eta teknologia ziklonikoko eskuarekin

**MILAR BIRE**

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

**IMH** INGENIARITZA DUALAREN  
UNIBERTSITATE ESKOLA  
ESCUELA UNIVERSITARIA  
DE INGENIERIA DUAL

AFM cluster

Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitatea

## Master Duala Especializazioak Ikastaroak

Zure talentua edo zure enpresarena hobetu nahi duzu?

IMHn 4.0 soluzioak eskaintzen dizkizugu:

**EMAN BALIO ERANTSIA ZURE TALENTUARI**

Digital Manufacturing  
Unibertsitate Master Duala  
HASIERA: IRAILAK 25

IKASTAROAK %100 SUBENTZIONATUAK  
ASTERO BERRIAK

**ESPEZIALIZATU ZAITEZ**

Datu-Analitikaren Proiektu burua  
HASIERA: IRAILAK 27

Fabrikazio Aditiboa  
HASIERA: URRIAK 28

**INFORMAZIOA ETA IZEN EMATEAK:**

IMH · Azkue auzoa, 1 · 20870 Elgoibar · [www.imh.eus](http://www.imh.eus)  
MASTERRA/ESPEZIALIZAZIOAK · 94378264 · [ingeniaritza.ehu@imh.eus](mailto:ingeniaritza.ehu@imh.eus)  
IKASTAROAK · 943748266 · [imhformazioa@imh.eus](mailto:imhformazioa@imh.eus)

## JUAN LUIS MUGERTZA

Idazlea



## Ametsak

baiari begira jarri nintzen erantzuna topatzeko asmotan, baina...

- Batzuek, zoriontasuna zoriontasunik behar ez izatea dela diote, zer deritzozu?

Zoriontasunari azterketa baten traza hartzen ari nintzaion, nahiz eta jakin zoriontasuna xehetasun txikiko, eta nota baxuko gauzetan dagoen.

- Badago zoriontasun osoa lortzerik?

Zoriontasun osoa lortzerik ez dago, baina bai une zoriontsuak. Atzealdean zegoen gizaki multzoak neure erantzunaren zuzentasunari txalo sorta batez erantzun zion, eta zoriontsuago sentitu nintzen. Izan ere, askotan, ez dakit zergatik, baina besteen oniritzia behar dugu zoriontsuak izateko.

***“Badago zoriontasun osoa lortzerik?”***

***Zoriontasun osoa lortzerik ez dago, baina bai une zoriontsuak”***

- Eta galdetuz gero zoriontasuna zure baitan edota kanpoan aurkituko duzun, zer esango zenuke?

Itaunaren lehengo zatiaren erantzuna banekien, baina bigarrena... Halarik ere, ezin isilik gelditu, eta...

- Zoriontasuna norberaren baitan dago: norberak bere burua maitez gero, hots, bere -tasun eta -keriak onartuz gero, errazago du zoriontsua izatea. Aitzitik, bila bazoaz zailago.

Ez dakit emandako erantzuna ulertu zuen, baina azken galdera nuen zain, eta sekulako gogoaz azterketa itxurakoa bukatzeko.

- Euskal Herrian badago zoriontasuna lortzerik?

Espainiaren menpe bizi izanda, ezinezkoa da. Hizkuntza dela, lurraldetasuna dela, kontratu zaborrak direla, sufrimendua dela..., nola izango zara zoriontsua!

Orduan, lo egin ezazu, lotan zaudela, zoriontsua izango zara eta.

Askotan ez ditugu gogoan, baina egunero etortzen zaizkigu (Inoiz gozo. Inoiz mikatz) bisitan, eta eskerrak! Irudikatzen duzue ametsik gabeko mundua? Nik, lehengoan, erdi lotan nengoela, aukera izan nuen beraiekin bakarrik izateko, eta tupustean egindako galdera zorrotzei, nola edo hala, erantzuteko, eta ez dakizue zer gaizki pasatu nuen.

- Zoriontsua zara?

Bertsolariak etorri zitzaizkidan burura, baina ni ez naiz, eta zurbil gelditu nintzen, zer esan ez nekiela. Horren trantze larrian ikustean, bigarren galdera luzatu zidan errazagoa zelakoan-edo.

- Zer da zoriontasuna?

Oraingoan, posturaz aldatu, eta sa-



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENeK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarki lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENeK ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuiztak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Irti Agirreazaldegi, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño **INPRIMATEGIA** Geritu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR  
UDALA  
AYUNTAMIENTO

LAGUNTZAILEAK:

MENDAKO  
1981

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua





BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► GORA MAUXITXA TXARANGA!

"Aurtengo jaixak jundakuak baiño hobiak izan dira...", "Nik daguaneko jarri dot hurrenguetarako atzerako kontua martxan...", "Sanbartoluak baiño jai hoberik ez dago iñun...", jaixak bukatu orduko herritar danon artian bolobolo ibili ohi diran esaldixak dira, baiña aurten, badago bestiak baiño altuago entzun dan beste bat ere: "Gora Mauxitxa txaranga!".

Gure irribarre, algara, salto eta dantzek argi laga badebe ere zenbat gozatu dogun zuekin, beste behin, eskerrik asko! Eskerrik asko goizian goiz hasi eta kantzaezinak baziñate moduan jotziarren, danok barruan daruagun elgoibartarra esnatu eta gure kalietan barrena herrixa bat egittiarren, urtero abesti berriren batekin zoratziarren gutako bakoitza eta zuen putz eta kolpe artian danok horren bizirik sentiaraztiarren. Zoragarrixa izan da "Bacalao salao"-n errimora ahotsik gabe geratzia, gorputz guztian agujetak izatia "Help, ayúdame" kantua benetan sentiituz, danon artian sortu dogun marea zuri-gorrixan parte izatia azken fiñian... eta jakin inori ez jakola dudarik geratu zergaittik ospatu dittugun aurten zuen 50 urte haundi.

Belaunaldi amaigabiek gure aukera bera izatiarren, segi danori uda bukatu izanaren penia arintzen, irailian sartu

geran arren, zuekin inor ez da-eta horren "gaixoa ni" sentiitzen. Haundixak zerate eta haundi egitten dittuzue horrenbeste maitte dittugun sanbartolomiak.

Gora zuek eta gora Elgoibar!

A.Z.

### ► ELGOIBARREN BORROKA FEMINISTAN ARI DIRENENTZAKO MEZUA

Indarkeria matxista bera sortzen duen sistemaren kontra egin orde, indarkeria matxistaren kontrako borroka erabiliz Elgoibarren faxista baten izena daraman kalea mantentzen duen Udalaren jokaera zuritzen laguntzea deabruarekin dantza egitea da, deabruak berak nahi duen errimora.

Beste mundutik datorren mezua: "Zein erraza den ahaztea". Hamahiru larrosak.

Pablo Klandestino Palestino

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituharaz:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraok, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetara zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleeraz datorren eskutitzik argitaratuko.



IX. URTEURRENA

*Jose Luis Huidobro Torinos*

2010eko irailaren 4an hil zen, 58 urte zituela.

**Beti izango zaitugu gogoan.**

Emaztea, seme-alabak eta gainerako senideak.





Zuen kezak, galderak edo txalok bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) - 943 744 112



**T**xakurren kaka jaso egin behar da: “Gero eta jende gehiagok dauzka txakurrak etxean, baina askok ez dituzte euren betebeharrak betetzen. Txakur askok espazio publikoan egiten dute txiza eta kaka, eta txakur jabearen betebeharra da horiek jasotzea. Errespetu apur bat eskatzen dugu, besterik ez”.



**M**aalako parkeko txirristak busti egiten dira Meuria egiten duenean: “Maalako parkea estaltzea erabaki zuen Udalak, eta egia esan, oso ideia ona iruditzen zait, euria egiten duenean umeekin egoteko primeran etortzen delako. Dena dela, estalpea ez da parkearen neurrikoa, eta euria egiten duenean txirristak eta mantangorria busti egiten dira. Ezin al dira elementu horiek apur bat mugitu? Eta bide batez ondo legoke ume txikientzako ziburu gehiago jar-tzea”. Hirigintza Saitetik jakinarazi dute estalpea egin zuten arkitekturekin aztertuko dutela gaia, eta aukeren arabera hartuko dituztela haur parkea berrantolatzeke erabakiak”



**U**bitarte kaleko zebra-bidea lausotuta dago: “Ubitarte kaleko zebra-bideak margotu beharra dauka. Auto asko ibiltzen da ingurune horretan, eta asko gainera abiadura handian. Zebra-bidea ez da ondo ikusten, eta auto gidari batzuk ez dute errespetatzen. Bidegurutze hori arriskutsua da oinezkoentzako, eta eskertuko genuke margotzea”. Hirigintza Saitetik jakinarazi dute zebra-bide hau eta herriko beste hainbat margotzeko asmoa dutela.

**I**dotorbeko zelaiaren erabilera desegokia egiten dute herritar askok: “Uda partean herritar asko joaten dira Idotorbe lauzora bazkaltzera edo afaltzera, eta askok ez dute errespetuz jokutzen. Musika oso altu jartzen dute, denok entzun nahiko bagenu moduan, eta hori ez da besteekiko jarrera egokia. Askok, gainera, ingurune guztia zikin-zikin uzten dute. Elgoibarrek daukan gunerik ederrenatarikoa da Idotorbe, eta denon artean zaindu beharko genuke. Ingurumena eta bizilagunak errespetatu egin behar dira”.



**B**ernardo Ezenarro kalea oso txukun geratu da: “Bernardo Ezenarro kalea oso txukun geratu dela iruditzen zait, eta txalo bat eman nahi nioke Udalari. Autoak orain norantza bakarrean ibiltzen dira, eta horri esker, aldapan aparkatzeko lekua dago. Herri honetan daukagun aparkaleku arazoak apur bat arintzeko irtenbide oso ona izan da. Oraindik badago zer hobetu aparkalekuen kontuan, baina poliki-poliki gauzak hobetzen ari dira”.



## Eguneko Zentroa Uparitzaga kalera lekualdatuko dute



**E**lgoibarko Udalak Eguneko Zentroa eraiki du Uparitzaga kalean, eta dagoeneko, detaile txiki batzuk baino ez dira falta zentroa martxan jartzeko. Arreta behar duten pertsonen eta hauen familien beharrei erantzutngo die Eguneko Zentroak. 350 metro koadro inguru ditu, eta 30 bat lagunei eskainiko die zerbitzua. Gainera, lehengo zentroak baino irisgarritasun hobea dauka. Udalak 200.000 euro erabili ditu zentro berria egokitzeke.

Hilketa matxistak zenbatzeko markagailua jarri du Udalak merkatu plazan

Emakumeen Kontseiluaren proposamena aintzat hartu eta indarkeria matxista salatzeke markagailua jarri du Elgoibarko Udaleko Berritasun Sailak merkatu plazako eraikinean, San Frantzisko iturrira ematen duen leihoetako batean. Abuztuan markagailua jarri zuten egunerako, eta Gobernu Ordezkaritzaren erregistro ofizialaren arabera, 40 ziren gizonek (izan bikotekide nahiz bikotekide ohiek) estatu espainiarrean hil zituzten emakumeak, baina *Feminicios.net* webgunearen arabera, kopurua handiagoa da. Izan ere, Gobernu Ordezkaritzaren erregistro ofizialean kontuan hartzeko, beharrezkoa da emakumeek eta haien hiltzaileek harreman sentimentalaren bat mantentzea edo noizbait izan izana. Hiltzailearen eta biktimaren artean harreman sentimentalik egon ez bada edo egon dela frogatu ezin bada, ez dute zerrendara gehitzen.

## Tecman enpresako grebalariek auzibidea hasi dute eta hilaren 20an izango dute epaiketa

Uztailaren 2az geroztik greban jarraitzen dute Mendaroko ospitalean mantentze zerbitzurako kontratatuta dagoen Tecman SVA. S.L. enpresako langileek. Prekarioan ari denak kalitatezko zerbitzua nekez berma dezakeela ohartarazi dute eta bi eskaera nagusi egin dituzte: batetik, KPlaren araberrako soldata igoera eskatzen dute, 2011n Gipuzkoako metaleko herrialdeko hitzarmena sinatu zenetik izoztuta dituztelako soldatak, eta bestetik, guardian egiten dituzten orduengatik lan bera egiten duten Osakidetzako mantentze lanetako langileek beste kobratzea. Guardia egun bakoitzeko (22:00etatik 7:00ak bitarteko lanaldia) 11 euro kobratzen dituzte Tecmaneko langileek, eta aldiz, lan bera egiten duten Osakidetzako langileek, 44 euro. Lan hori ez da goela ondo ordainduta uste dute, eta gainera, guardian kontua ez dela batere eraginkorra ospitalerako. "Zaintzan gauden denboran lantokitik kanpo gaude, baina deia jasotzen dugunetik orduerdiko tartean agertu beharra daukagu ospitalera. Reten hori kendu eta gaueko lanaldia sortu beharko luketela iruditzen zaigu, ospitalean edonoiz gerta daitekeelako larrialdi bat eta larrialdi kasuetan orduerdiko tartea denbora asko delako", adierazi zuen ostegunean Ane Agirrek Tecmaneko langile eta LABeko delegatuak. Joan zen martitzenean gertatutako ezbehar bat jarri zuen horren adibidetzat. Larrialdietako gunean polibutilenozko hodi batzuk lehertu eta ur ihesak kalte handiak eragin zituen larrialdi gunean bertan, bai eta radiologia gunean ere. Bideoa: *barren.eus*





## 'Bizilabe' eta 'Robotika dibertigarria' egitasmoak hasiko ditu Udalak

Gaztetxoaren artean teknologia eta zientziarako zaletasuna sortu nahi du Elgoibarko Udalak, eta helburu horrekin Robotika dibertigarria tailerra sortu zuen duela bost bat urte. Horri *Bizilabe* izeneko egitasmoa gehitu zaio aurten, 11 eta 14 urte arteko gazteen artean ekintzaitzeta eta sormena sustatzeaz gain, teknologiaren eta teknikaren alorrean kualifikazio handiko profesionalak sortzea bilatzen duen ekimena. *Bizilaben* izena eman nahi duenak irailaren 16a aurretik egin behar du, honako helbide honetan: <https://labur.eus/bizilabe2019-2020ikasturteaelgoibar>. Robotika dibertigarria tailererrako izena emateko azken eguna berriz irailaren 30a izango da: <https://bit.ly/robotikaelgoibar>.

### Sanbartolomeetako eta Gipuzkoako Artzai Gazta lehiaketa irabazi ditu Mausitxak

Bi egunetan bi gazta lehiaketa irabazi ditu Mausitxak: Elgoibarko Sanbartolomeetako Gazta lehiaketa zapatuan, eta Gipuzkoako Artzai Gaztaren txapelketa domekan, Le-gazpin. Mausitxaren hurrengo, Mutrikukoko Goienetxe baserriko gazta eta Aitor Montxol legazpiarraren Makatza gaztandegiko gazta aukeratu zituzten Elgoibarren bigarren eta hirugarren gaztarik onenak. Domekan, berriz, Gipuzkoako Artzai Gaztarik onena aukeratu zuten Mausitxakoa. Legazpiko Artzain Egunaren barruan jokatzen da lehiaketa hau, eta domekakoaz, sei aldiz irabazi du Mausitxak: 2005ean, 2007an, 2009an, 2013an, 2015ean eta aurten. Iaz, berriz, txapelkunorde izan zen.



### Herri Eskolako jolastokiko zorua eta haurreskolako komunak berritu ditu Elgoibarko Udalak, eta Mendaron, haurreskolari erreteila berria egin dio Udalak



Uztailen hasi zituen Elgoibarko Udalak Herri Eskolako jolastokiko zorua eta haurreskolako komunak berritzeko obrak. Haurreskolako komunak berritzeko 19.363 euro (BEZik gabe) jarri ditu Udalak, eta Herri Eskolako jolastokiko zorua berritzeko (1.000 metro koadroko azalera), 38.725 euro. Mendaron, berriz, abuztuaren 26an hasi zituzten haurreskolako sarrera gaineko sabaia konpontzeko eta erreteila berria egiteko lanak. Azkoitiko Construcciones Egurki S.L. enpresak egin ditu obrak eta 22.340 euroko aurrekontua izan dute horretarako, BEZa barne. Ikasturte berria atzo, osteguna, hasi zuten Mendaroko Haurreskolan, eta Elgoibarko Herri Eskolan, berriz, astelehenean hasiko dute Elgoibar Ikastolan eta Mendaro Ikastolan bezalaxe.



## ▶ ITZIAR FERNANDEZ

AKTIBISTA

Feminista eta aktibista dela dio bere buruz Itziar Fernandezek (Elgoibar, 1950). Kapitalismoaren kontra militatzen du, eta abuztuko azken astean munduko zazpi estatu nagusietako agintariak Miarritzen egin duten goi bileraren kontrako G7 EZ plataformako bozeramailetako bat izan da. Kontragailurrera eraman zuten arrazoiez eta han bizitakoez hitz egin digu, kontragailurretik bueltan.

- AINARA ARGOITIA -



Itziar Fernandez (ezkerrean), Eñaut Aramendi eta Aurelia Trove G7 EZ plataformako bozeramaileak.

# “Kontragailurra eta aktibismoa itotzeko eginahalak egin dituzte, baina ez dute lortu”

### ♦ Munduko oligarkiaren kontrako kontragailurrean parte hartu zenuen. Zerk eraman zintuen hara?

Injustizien kontra egin beharrak. Banekien G7koen bilera zer izango zen eta derrigorrezkoa iruditzen zitzaidan alternatibak planteatzea. Ongi-etorri errefuxiatuak plataformako aktibista naiz ni, eta joan zen irailean hasita hor jardun gara plataformakook kontragailurra prestatzen eta beste ehun bat eragilerekin batera programa adosten. Intersektionalizazioaz hitz egiten dugu feminismitik, zapalkuntza askoren gurutzatzeaz, eta hori du kapitalismo ultraliberal eta salbaje honek. Gure mundua suntsitzen duten arkitektura neoliberalaren eta zapalkuntza sistema ezberdinen kontra egiteko batu ginen.

### ♦ Kapitalismoaren kontrako militanteen topaleku izan zen kontragailurra. Zer jaso zenuten programan?

Zazpi tematika nagusiren bueltan oinarritu ziren hitzaldi, tailer eta kultur jarduera guztiak: Kapitalismoa eta multinazionalen diktadura, planetaren suntsitzea, feminismoa, deskolonizazioa, demokrazia soziala, herrien arteko elkartasuna gerra inperialisten kontrako irtenbidetzat eta pertsonentzat mugarik ez duen mundu baten aldeko borroka, garbi dugulako gure planetan pertsona bakar bat ere ez dela ilegala. Beste kontinenteak arpatzen ari dira gure agintariak, besteen aberastasuna lapurtzen, eta behin herri horiek pobretuta, gero gainera harresiak eta trabak jartzen dizkiete pobretutako eta jazarritako herrialdeetatik ezer gabe ihesi datozen migranteei. Asko hitz egin

dugu horretaz, bai eta feminismoaz ere, garbi gelditu delako beste mundu bat eraiki nahi bada beste mundu horrek feminista izan behar duela bai ala bai.

### ♦ Polizia kontrolak izan ziren non-nahi. Nola bizi izan zenuen?

Itogarria izan zen. Munduko zazpi estatu aberatsenetako agintariak batu ziren Miarritzen, lehenengo aristokrazia batzen zen jauregi batean, zertarako eta autoritarismo osoz mundu hau ahal den gehien ustiatuta eurentzat etekin handiena nola atera erabakitzeko, eta aurreikusten genuen moduan, inguru osoa bunkerizatu zuten. Lotsagarria izan da ikustea nola kriminalizatu dituzten gure protesta baketsuak, nola kriminalizatu duten gure aktibismoa. Gu geunden ingurura ez joateko esan eta esan aritu zen Jaurlaritza ere. Beldurra sartu zuten, estrategia baten baitan jakina. Indarkeria erabiliko genuela zabaldu zuten, hasieratik esana geneukanean alternatibak planteatzera gindoazela gu, guztiz modu baketsuan. Gure kanpalekuan ere sekreta ugari identifikatu genituen, indarkeria probokatzeko ahaleginean. Gendarmeak, guardia zibilak, Espainiako poliziak... saldoka ibili ziren, nik sekula ikusi ez beste, eta gainetik, Jaurlaritzak 4.000 ertzain bidali zituen. Zertarako? Azaldu beharko ligukete zertarako, han ez zegoelako horrenbeste armadunen beharrik.

### ♦ Zer nolako giroa izan zenuten kanpalekuan?

Ez nuen gaurik egin han, baina giroa izugarria izan zen. Tentzio une batzuk bizi izan ziren, baina garrantzirik gabeak. Harre-

man onak egin ditugu, konfiantza giroa sortu da gure artean, elkartzen gaituen puntuetan jarri dugu arreta eta indarrak metatu ditugu, sareak eraiki ditugu, eta aurrera begira, ekarpen handia da hori. Lo, jan eta gaueko giroaz gozatu zuen jendeak Urruñako kanpalekuan. Ehun bat eragiletako 2.000 bat pertsona egon ziren. Hori bai, hitzaldi eta tailerrak Irungo Ficoban eta Hendaian izan ziren, ez zigutelako ezer jarri errez. Azkeneko unera arte ez genuen jakin zer non egin genezakeen.

#### ◆ Zein izan zen zure egitekoa kontragailurrean?

Frantziako Alternatives G7 plataforma eta Euskal Herriko G7 EZ plataforma jardun ginen han lanean eta bozeramaileetako bat izan nintzen ni.

#### ◆ Zer balorazio egiten duzu bizitakoaz?

Kontragailurra antolatu ahal izatea bera lorpen handia izan da. 6.000 pertsona baino gehiago ibili dira tailerretan-eta, eta han ibili dira denak Santiago zubian aurrera eta atzera korrika, hitzaldi batetik bestera ailegatzeko. Kapazak izan gara ehun eragile baino gehiago batu, lehentasunak lehenetsi eta adostasun batera iristeko eta kapazak izan gara horrenbeste poliziaren probokazioan ez jausteko eta alternatibak era baketsuan aurkezteko. Abuztuaren 24ko manifestazio koloretsuan 15.000 lagun baino gehiago batu ginen eta izugarria izan zen, baina hori ikusita, hasi ziren jendea atxilotzen, eta tamalez, bertan behera laga behar izan genuen biharamunerako antolatuta geneukan protesta. Airekoak, dronak han-hemen, armadunak bazter guztietan... itolarri handia izan da, eta kontragailurra eta aktibismoa itotzeko eginalak egin dituzten arren, ez dute lortu. Pauso bat eman dugu, pauso txiki bat, eta orain, jarraitu behar dugu elkarrekin mundu hobe baten alde egiten, behetik gora.

#### ◆ Mundu hobe baten aldeko borroka behetik gora gauzatu behar dela diozu. Zer egin genezake norbanakook?

Guk askotan uste baino gehiago. Eragin behar dugu inguruan, lagunartean, familian, udaletxeetan, aldundietan... Mundua ez dugu aldatuko, baina denok geure aletxo jarriko bagenu, bul-

izatuko genuke aldaketa. Badakit ez direla gauzak kolpe batez aldatuko, baina jende gazte asko daukagu lanean eta nik itxaropena badut. Ez da optimismo zoroa, urte batzuk eta eskarmentu apur bat baditudalako, baina itxaropentsua naiz, bai, arrazoiak ikusten ditudalako.

#### ◆ Mediterraneo itsasora migratzaileak eta iheslariak erreskatatzera irteteko baimen zain dagoen Aita Mari itsasontziko tripulazioaren ondoan ere ikusi zaitugu egunotan.

Gure babesa agertu diegu, erabat ulertezina delako pertsonak erreskatatzera joateko prest dauden boluntario hauei itsasoratzen ez lagatzea. Laguntza behar duenari laguntzea denon betebeharra da, eta hala dago jasota legetan. Pobreak direlako itotzen laga behar al ditugu? Zer da hau, baina? Laguntzera joan direnak kriminalizatu nahian ari zaizkigu, gainera, agintariak. Miguel Roldan Sevillako suhiltzailea, adibidez, inputatuta dago eta 20 urteko kartzela zigorrarekin mehatxatzen dute, itsasoan jendea erreskatatzen jardun duelako. Jende horrek nire babes osoa izango du beti. Mediterraneo fosa komuna da gaur egun. Jaso ditugu gorpu batzuk itsasotik eta erreskatatu ditugu beste batzuk, baina izebergaren punta baino ez dugu ezagutzen. Migrazio politika negargarria daukagu. Gure agintariena nekropolitika da. Badakite inork ez dituela bere sorterrria eta senideak uzten ihesean bizitza arriskuan jartzeko. Beren herrietan bizi ezinak bultzatzen ditu migratzera. Gure herria ere izan da migratzailea, eta ez 36ko gerran bakarrik. Europa herri migratzailea izan da beti. Mundu zoro batean gaude, baina ez kasualitatez, gaur politika maneiatzen dutenak horretara bultzatzen gaituztelako baizik. Zergatik gaude emakumeak gauden moduan? Sistema honi eusteko ezinbestekoa zaielako guk azpiratuta jarraitzea; kapitalismoari eusteko derrigorra zaielako zaintza geure gain uztea. Sortzen ari den arrazakeria eta xenofobiak ikaratuta nauka. Iruditzen zaigu kanpotik datorren pobre horrek guk daukagun apurra kenduko digula; gure mira okerreko lekura zuzendu dugu, eta pobreak pobreen kontra ari gara.

## G7aren eraginak



Joseba Olazabal

G7koen bilerak gurean ere izan zuen eraginik. Elgoibarren, kolokan izan zen San Bartolome bezperako Etxaniz Memoriala jokatu edo ez, ertzain faltagatik, eta Mendaron, Joseba Olazabalek ertzainen bisita jaso zuen etxean abuztuaren 23an, autobide bazterrean jarria zuen *Help Trump* kartela zela-eta. Olazabalek urteak daramatza A8 autobidean zarataren kontrako panelak jartzeko eskatzen, eta hainbat kartel eta bestelako jarri izan ditu bere etxe bueltan eta pareko zelaian, autobidetik ikusteko lekuetan. Umore dosi handiko kartelak dira denak, eta horietako batek *Help Trump* dio. AEBetako presidentea han eta hemen harresiak eraikitzen hasi zenean bururatu zitzaion Olazabali Trumpi laguntza eskatzea, ironiaz. Trump Miarritzera etorri zenean, baina, AEBetako zerbitzu sekretuetako poliziek kartela ikusi zuten, eta argibide gehiagoren bila ertzainen patruila bat bidali zuten Mendarora. "Dronen eta A8 autobidean dabilzan polizia-patruilen bidez zerbitzu sekretuetakoek kartela ikusi dutela azaldu zidaten eta G7koen bilerarekin loturarik ote duen galdetu. Azaldu nien kartelak ez zuela G7koen goi bilerarekin loturarik. Askoz aurreragokoa dela nire borroka. Interneten sartu eta erakutsi nizkien azkeneko urteotan publikatu diren bideo eta abarrak, eta informea osatu eta joan ziren, lasai egoteko esanez". Halaxe azaldu zuen Olazabalek gertatutakoa.




29



30

Gazteen eguna







Roita Racing II taldeak irabazi zuen goitiberahera txapelketa, eta Drift Triken artean, Aimar Elizburuk egin zuen jaitsierarik azkarrena.







# 31

## Baserritarren eguna



Aburuzak irabazi zuen Sagardo Lehiaketa. Aztiazaran izan zen bigarrena eta Alorrenea hirugarrena.

Javier Arrizabalaga 'Ziarda' bertsolaria omendu zuten Baserritarren Egunean. Mikel Mendizabal, German Meabasterretxea eta Uxue Alberdi aritu ziren bertsotan.



Mausitak irabazi zuen San Bartolome jaietako Gazta Lehiaketa.



Jokin Eizmendik irabazi zuen sanbartolomeetako harri-jasotze txapelketa.







## ▶ MAITE MAIORA

KORRIKALARIA

Arg.: Fotoiosu

“Jarraitzen dut Mont Blancoko Ultratrailarekin amets egiten”

Urteko erronka nagusia zuen UTMB Mont Blancoko Utratraila, bere estraineko ehun miliakoa, eta hirugarren egin du, Courtney Dauwalter estatubatuararen eta Kristin Berglund suediarren atzetik. Hirugarren egin du parte-hartzaileei dagokionean inoizko mailarik handieneko UTMBan, eta Ultra Trail World Tourra bukatzeko lasterketa batzuk falta badira ere, hirugarren bukatuko du sailkapen nagusian, oker handirik ezean. Inork gutxik jarriko du zalantzan: munduko korrikalari osoena da gaur Maite Maiora (Mendaro, 1980). Ez dago beste inor kilometro bertikaletan munduko txapeldunorde izan, mendiko maratoietan munduko txapelduna izan, Extreme Kopan eta ultra motzetan nahiz ehun miliatakoetan Maioraren maila eman duenik. Distantzia guztietan nabarmendu da.

- AINARA ARGOITIA -

### ♦ 171 kilometro, 10.000 metroko desnibel positiboa, zure lehenengo ehun miliakoa. Zorionak, Maite. Errekuperatu al zara?

Ezta pentsatu ere. Laino batean nago egotez, baina atzo, lanetik irten eta Pilarreko aldapan gora nindoala, lankide batek barre egiten zuen nire pausokera ikusita.

### ♦ Noiz animatu zinen UTMBrako?

Iaz, Hiru Handiak egin ostean. losuk [Juaristi, senarra] eta biok beti pentsatu izan dugu munduko ultrarik handiena edo bereziena dela. Politak badira gehiago ere, baina entzute handienekoa hau da. Orain hiru bat urte UTMBrako puntuak lortzeko hiru lasterketa jokatu nituen, bat Suitzakoa, 128 kilometrokoa. Lesio batetik irten berri joan nintzen hara, izugarri sufritu nuen eta gogoratzen naiz UTMBn ez ninduela ikusiko esan niola Ainhoa Txurrukari. CCC mendi lasterketa egingo nuela esan nuen, [Italiako Courmayeur herrian hasi eta Frantziako Chamonixen amaitzen den 101 kilometrokoa]. Baina, iaz, izan nuen urte arraroaren ostean Hiru Handiak prestatzen disfrutatu nuen dena ikusita, UTMBrako haizea hartu nuen. Sartu nintzen web ofizialean eta nire harridurarako UTMB egiteko behar diren hamabost puntuak baneuzkala konturatu nintzen, eta, gainera, zer diren gauzak, azkeneko hiru pun-

tuak Hiru Handiak egin izanak eman zizkidala, urte hartan berez egin asmo ez nuen proba egin izanak hain zuzen ere. Kasualitate asko ziren eta UTMB egiteko deia izan zitekeela pentsatu nuen. UTMBrako izena emango nuela bota nienean, aho zabalik gelditu zitzaizkidan losu eta Etor [Mendia] prestatzailea, ordura arte ezeztzean nengoelako. Eta hartu nuen Ultratrail Word Tourreko egutegia eta aukeratu nituen UTMB prestatzeko balioko zizkidaten hiru lasterketa handi, neure gustuko hiru handi.

### ♦ Beste urte batzuetan baino lasterketa gutxiagotan jokatu dituzu aurten, baina hala ere, UTMBrako faboritoen artean zintuzten askok. Zeuk ere hala ikusten zenuen zure burua?

Ezta pentsatu ere! Kazetarien kontuak dira horiek. Nire lehen ehun miliakoa zen, ez nuen distantzia hori ezagutzen. Kilometro bertikal bat egitetik maratoiara dagoen alde baina handiagoa dago maratoi bat egitetik ehun miliako bat egitera, eta halako distantzia luzeetan behar den eskarmentua falta nuen nik. Amets egiten nuen Top 10arekin, baina horixe, amets, amets egitea libre delako. Gogoratzen dut egun batzuk aurretik, losuk, erdi brome-tan, nola esan zidan ‘*la vas a liar, Maite!*’ eta nola erantzun nion nik: ‘Ez, eta badakizu ezetz, gainera’.





## Gipuzkoako bertsolari txapelketako saio bat Elgoibarren jokatuko dute, hilaren 29an

Irailaren 14tik abenduaren 14ra bitartean jokatuko dute Gipuzkoako bertsolari txapelketa hainbat herritan, eta final zortzirenetako saio bat Elgoibarren jokatuko dute. Irailaren 29an izango da, domekan, Herriko Antzokian, 17:00etatik aurrera. Guztira 48 bertsolarik hartuko dute parte txapelketan, eta zortzi onenek jokatuko dute finala Donostian.



Elgoibarko kanporaketa Ane Ezenarro Beristainek aurkeztuko du, eta Iñaki Gurrutxaga Zubimendi, Unai Gaztelumendi Arandia, Endika Igarzabal Murua, Jokin Uranga Isuskiza, Ane Labaka Mayoz eta Eñaut Martikorena Lizasok jardungo dute lehia.

Sarrerak [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) webgunean daude salgai, 10 euroan. Bazkideek zazpi euro ordaindu beharko dituzte, eta 6-16 urte bitarteko gazteek, aldiz, bost euro. Sarrera guztiak saltzen ez badituzte, Herriko Antzokiko leihatilan jarriko dituzte salgai kanporaketaren egunean bertan. Leihatila 16:00etan irekiko dute.

## Euskarak mundu digitalean duen presentzia landuko dute 'Euskara ala Ezkara' jardunaldian

Euskarak mundu digitalean daukan presentzia eta eragina aztertuko dute aurtengo *Euskara ala Ezkara* jardunaldian. Zergatik egon behar du euskarak mundu digitalean? Badago euskara mundu digitalean? Ezagutzen eta sozializatzen dugu mundu digitalean daukaguna? Burujabetza digitala: nola eta zertarako? Galdera horiei eta beste batzuei erantzun zuzenak eman behar dira. Egun osoko emaldia prestatu dute, eta besteak beste, musika, poesia, hitzaldiak, pintxo bazkaria eta mahai inguruak izango dira. Urriaren 5ean izango da, 9:30etik 18:00etara, IMHn. *Euskara ala ezkara* zikloa Elgoibarko Izarrak, Udalak eta puntu.EUS fundazioak antolatuta dute elkarlanean, eta Danobatgroup taldearen diru-laguntza jaso du ekimenak. IMHk antolatzaileen zerbitzura laga du eraikina.

Interesatuek Elgoibarko Izarrak (943 741 626, Imanol Larrañaga) edo PuntuEus Fundazioan (656 721 868, Leire Palacios) eman dezakete izena. Matrikulak 30 euro balio ditu, pintxo-bazkaria barne.



## San Antolin jaiak, asteburuan

Arriaga auzoan dena prest dago San Antolin jaiak ospatzeko. Astelehen, irailaren 2an, izan zen San Antolin eguna, eta horren harira, hainbat ekitaldi izango dira asteburuan. Gaur iluntzean botako dute txupinazoa, eta, segidan, txapel eta oliba-hezur jauritze txapelketak izango dira. Txiste afaria, eta musika ere ez dira faltako. Bihar, berriz, umeentzako jolasak eta dantzaldia izango dira, besteak beste. Egitarau osoa agendan duzue.

## Martxan da 2020ko egutegirako argazki lehiaketa

2020ko egutegirako argazki lehiaketa parte hartzeko epea urriaren 9an amaituko dela jakinarazi du Elgoibarko Udalak. Aurtengo gaia Kirola Elgoibarren da, beraz, kirolarekin zerikusia duten argazkiak aurkeztu beharko dira. Argazkiak Kultur Etxean entregatu behar dira edo emailaz [euskara@elgoibar.eus](mailto:euskara@elgoibar.eus) helbidera bidalitz.

Epaimahaiak 12 argazki aukeratu ditu egutegi handirako eta beste argazki bat egutegi txikirako. Txankakua merkataria elkarteko dendetan gatzatzeko 80 euro jasoko ditu saritutako argazki bakoitzaren egileak. Lehiaketaren oinarri guztiak [www.elgoibar.eus](http://www.elgoibar.eus) webgunean daude argitaratuta.

## 'Elgoibar Europako Kirolaren Hertia' txapelketa jokatuko dute kadete mailako eskubaloit taldeek



Elgoibar Europako Kirolaren Hertia 2019 eskubaloit txapelketa jokatuko dute asteburuan Elgoibarren. Kadete mailako nesken zein mutilen hamar talde lehiatuko dira IMH eta Olaizaga kiroldegietan. Sanloko bi taldek hartuko dute parte, nesken arteko lehiak batak eta mutilenean besteak. Neskek Errotabarri, Aiala Zarautz, Anaitasuna eta Castro Urdiales izango dituzte aurkari. Mutilak, berriz, Pulpo, Aiala Zarautz, Anaitasuna eta Castro Urdiales taldeen aurka jokatuko dute. Sanlok beste txapelketa bat ere antolatu zuen aurreko asteburuan, XVII. San Bartolome Eskubaloit Txapelketa, hain zuzen ere. Goi mailako bost taldek hartu zuten parte (Sanlo, Amenabar Zarautz, C.D. Bidasoa, Baionako Aviron Bayonnais eta Ciudad Realeko Alarcos). Gainera, Olaizagara gerturatu ziren zaleek hiru elgoibartar ikusteko aukera izan zuten kanpotik etorritako taldeetan. Asier Urainek Alarcos Ciudad Real taldean jokatzeko du, Amenabar Zarautz taldeko jokalaria da Ibai Perez de Albeniz eta Julen Urruzolak Bidasoa Irun taldearekin jokatu zuen.


### Elgoibar Sasoian egitasmoa irailean abiatuko da

Elgoibarko Udaleko Gizarte Ongizate Sailak eta Udal Kirol Patronatuak irailean jarriko dute martxan Elgoibar Sasoian egitasmoa. Bizitza aktiboa izatea nahi duten 60 urte baino gehiagoko elgoibartarrek hartu dezakete parte programa honetan, eta horretarako Udal Kirol Patronatuko bazkide izan beharko dira. Programa honetan parte hartzea nahi dutenek Olaizaga kiroldegiko harreran eman behar dute izena. Sustatzaileek jakinarazi dutenez, hiru ardatz nagusi ditu egitasmoak: jardura fisikoa, garapen eta ahalduzko pertsonala eta orientazio zerbitzua.



### Boxeo eta eskalada ikastaroak emango dituzte

Ume, nerabe, gazte zein helduentzako eskalada ikastaroa antolatu du Udal Kirol Patronatuak. Izena ematen dutenen maila bereizteko probak egingo dituzte Olaizagako errokodromoan, irailaren 19an, eguena, 17:00etatik aurrera. Ikastaroko taldeen eta ordutegien banaketa proba horren arabera egingo dituzte, eta interesatuek Olaizaga kiroldegian eman beharko dute izena. Ikastaroaren prezioa (hilean) honako hau izango da: 16 urtera arteko abonatuak 33 euro eta abonatu ez direnak, 38 euro. 16 urtetik gorako abonatuak, berriz, 37 euro, eta abonatu ez direnak 47,50. Bestalde, Ixa Rodriguezek antolatu duen boxeo ikastaroko ate irekien jardunaldia, irailaren 12an izango da, 18:00etan, Olaizaga Kiroldegian. 8 urtetik gorako haur, nerabe, gazte eta helduek parte hartu dezakete ikastaroan eta Olaizaga kiroldegian eman behar da izena. Ikastaroaren prezioa: 40 €/hilean.



### Mintxeta Atletismo Taldera batzeko izenematea zabalik

2019-2020 denboraldia hastear dela-eta, Mintxeta Atletismo Taldeak jakinarazi du taldera batu nahi dutenek orain dutela aukera. Interesatuek [mintxeta@mintxeta.com](mailto:mintxeta@mintxeta.com) helbidera idatzi behar dute edo 630 291 758 telefono zenbakira deitu eta Danigatik galdetu. Elgoibar, Mendaro, Soralueze, Deba eta Mutrikuko umeei zuzendutako deialdia da. Atletismo taldekoen entrenamenduak astelehenetan, eguaztenetan eta eguenetan izango dira, 18:30etik 20:00etara, Mintxetan. Irailaren 9an hasiko dute denboraldia.

### Nahaste Borraste, irailaren 20an

Kimetz elkarteak jakinarazi duenez, irailaren 20an jokatu da 35. Nahaste Borraste proba herrikoia. Joan zen ekainaren 28an zen jokatzekoa, baina egun horretan Kalegoen plazan gertatutako ezbeharraren ostean, bertan behera laga behar izan zuten.



**LANA.....****Eskaerak**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka.

☎ 612 455 854

Adinekoak zainduko nituzke. Asteburuetan, gauzez, edo etxeko langile moduan ere bai. Malgutasun osoa.

☎ 631 980 531

Adinekoak zainduko nituzke, gauzez edo etxeko langile moduan.

☎ 603 346 659

Adinekoak zainduko nituzke. Asteburuetan lan egiteko prest. Berehala hasteko moduan nago eta esperientzia handia daukat.

☎ 632 344 327

Etxeak garbitzen edo adinekoak zaintzen egingo nuke lan.

☎ 632 642 320

Umeak eta adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Berehala lanean hasteko prest.

☎ 602 850 826

Adinekoak zaintzeko edo baserriko lanak egiteko prest nago.

☎ 632 786 847

Adinekoak zaintzeko edo baserriko lanak egiteko prest nago.

☎ 631 736 770

LHko eta DBHko eskolak eta batxilergoko ingeles eskolak ematen ditut.

☎ 630 055 077 / 666 667 183

Orduka edo etxeko langile moduan lan egiteko prest nago.

☎ 632 630 483

**KINTOAK.....**

1957koen kinto bazkaria Sigman, irailaren 14an. 12:30ean batuko dira Kalegoen plazan, gero luntxa eta bazkaria. 50 euro ordaindu kontu honetan: ES62 2095 5036 5091 1912 0011 (Kutxabank). Kontzeptuan norberaren izen-abizena jarri behar da.

Club Deportivo Elgoibar, Discoteca Pelouse eskubaloi proiektua hasi zutenek bazkaria egingo dute irailaren 14an. Interesatuek deitu ondorengo telefonoetara:

☎ 669 658 191 (Vicente)

☎ 667537228 (Modesto).

**BESTELAKOAK.....**

Haur jaioberri batentzako kapotadun aukia eta se-haska behar ditugu.

☎ 616 691 990

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu.

Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) / 22€ (salmenta).

Autoak saltzea: 18€.

Bestelakoak: 10€.

Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

**BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:**

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) / 20€ (salmenta).

Autoak saltzea: 15€.

Bestelakoak: 8€.

Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

administradores

Consejo Estatal de Colegios de Administradores de Empresas  
Euzkoako Erakunde Administrazioaren  
Ikastetxe Nazionala



**ROSA Mª  
PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

**660 969 679**  
**rosapf@telefonica.net**

**Beherengo solairuan bizi naiz, eta jakin nahiko nuke hesiak jarri ote ditzakedan leihoetan, segurtasun arrazoiak argudiatuta.**

Fatxada eraikineko elementu komuna da, eta beraz, estetikari eragiten dion edozein aldaketa egitea debekatuta dago, baldin eta ez bada etxejabe guztien artean adostutako kontua izan. Eta zure kasuan, udal ordenantzetan jasotakoa ere begiratu beharko litzateke. Dena den, kasu honetan komunitatearen eskubideak talka egiten du edozein etxejabe bere etxean seguru bizitzeko duen eskubidearekin.

Zure kasuan, bileran aipatu beharko zenuke gaia, etxejabeen baimena eskatuz. Bileran baietza irteten bada eta bestelako traba administratiborik ez bada, inolako arazorik gabe jarri ahal izango dituzu hesi horiek. Traba administratiborik ez bada, baina bileran ezetzak irabazten badu, auzitegira jo ahal izango duzu, etxean seguru bizitzeko baldintzak urratu zaizkizula arrazoituta.

**Ondorioa: Kasuistika asko egon daitezke, baina normalean, eta eraikinaren estetikari eta beste etxejabearen bati kalte handirik egiten ez zaion kasuetan (adibidez, hesiok baliatuta gora-goko etxera eskalatzeko aukera izatea), epaileek baimentzen dute hesiak jartzea, etxejabearen segurtasunerako direla aintzat hartuta.**





Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.




Zorionak, **Ibon**, uztailaren 30ean urtetxo bat egin zenuelako. Muxu bat etxeko denon partez.



Zorionak, **Enaitz**, atzo 9 urte handi egin zenuelako. Etxeko partez.




Zorionak, **Paul**, 6 urte handi! Oso ondo pasatu genuen zure urtebetze egunean. Asko maite zaitugu.



Zorionak, **Inge**, abuztuaren 29an urtetxo bat egin zenuelako. Familiako guztion partez. Ederra zara!



Zorionak, **bikote!** Iristear da egun handi! Kuadrillakoak emozionatuta gaudе momentu paregabe hau zuekin bizitzeko.



Zorionak, **bikote!** Gozatu zuen eguna, eta segi horren zoriontsu. Familiako partez.



Zorionak, **Larraitz!** Urte askuan, txapela kaskuan. Asko maite zaitugu. Haizea, laiene, jabi eta Irantzu.



Zorionak, **Sare**, igandean 10 urte handi beteko dituzulako. Hamar muxu handi etxeko partez, potoxolita.



Zorionak, **Naroa**, uztailaren 30ean 2 urte bete zenuelako. Muxu handi bat familiako eta bereziki, Gorkaren partez.

Erretratu bakarrekogurra: 4'50€.

Argazki bikoitza: 7€.

Hirukoitza: 9€.

Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrekogurra: 3'50€.

Argazki bikoitza: 6€.

Hirukoitza: 8€.

Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

## Aurrematrikula epea zabalik 2019-2020

### INGELESEKO AKADEMIA

- Ingeles errefortzuak
- Cambridge azterketak
- Talde txikiak

Plazak libre!  
Gorde zure lekua!

667 261 248

**IKASGO**  
ACADEMY

Basarte 13, behea - Elgoibar  
[akademiaelgoibar@gmail.com](mailto:akademiaelgoibar@gmail.com)

RPS 18312



ELGOIBAR - DEBA

San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
Tel.: 943 740 359

[www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

### ► Iraileko eskaintza:

- ✓ Pantaila digitalentzat lente bereziak 190€ + montura
- \*kontsultatu graduazio baldintzak



### ► Iraileko zozketa:

- ✓ Hiru instax kamera dendan eginiko erosketen artean





## 9 ASTELEHENA

16:30 Ludotekaren irekiera.

## 10 MARTITZENA

14:00 Merkatarientzako formazio saioa. *Zergatik erosi behar dizut zuri, eta ez, besteren bati?* Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## 11 EGUAZTENA

17:00 Gaztelekuaren irekiera.

## 12 EGUENA

19:00 Isiltasun Eskolako saioa, Kultur Etxeko sotoan.

## 13 BARIKUA

18:00 Odol ateratzeak. Elgoibarko odol emailen lokalean.

## 14 ZAPATUA

16:00 Bilbon egingo den 47akherrian manifestaziorako autobusa. Txan-kakoako zubitik. Tiketak erosteko: Jai Alai, Iturri eta Lanbroa.

## SAN ANTOLIN JAIAK

### 6, BARIKUA

19:00 Txupinazoa.

**Ondoren**, Txapel jaurtitze eta oliba-hezur jaurtitze txapelketak.

20:30 Trikitilarien kalejira.

21:00 Txiste afaria. Txiste kontalaria: Guillermo Seguro eta Eusebio Lasarte.

**Jarraian**, erromeria Parrapas taldearekin.

**Goizaldean**, txokolate jana.

### 7, ZAPATUA

17:00 Umeentzako jolasak eta mus, futbolin eta toka txapelketak.

18:00 Tortilla txapelketa.

19:00 Gizon eta emakumeen herri kirolen erakustaldia, aizkoran, harri-jasotzen, frontzan, ingudearekin eta txingekin.

21:00 Afaria.

**Gero**, erromeria Laja eta Lutxurdio trikitilarekin. Tartean dantza txapelketa.

**Goizaldean**, errifaren zozketa.

**Bukatzeke**, txokolate jana.




### *Isidro Gorosabel Velar*

2019ko abuztuaren 10ean hil zen, 85 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Izan zarenagatik eta erakutsi diguzunagatik ez zaitugu inoiz ahaztuko.***

Etxekoak





## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00 (*)		
6 BARIKUA	7 ZAPATUA	8 DOMEKA	9 ASTELEHENA	10 MARTITZENA	11 EGUAZTENA	12 EGUENA	13 BARIKUA
Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti *Barrenetxea	Egunez *Oruesagasti	Egunez Garitaonandia	Egunez *Ibañez	Egunez Barrenetxea	Egunez Etxeberria	Egunez *Fernandez
Iluntzean Yudego	Iluntzean *Oruesagasti	Iluntzean *Oruesagasti	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Barrenetxea

\* Fernandez:  
Herriko enparantza 4,  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

\* Ibañez:  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

\* Oruesagasti:  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

**Urte guzian, gabez: 22:00-09:00**  
Zulueta. San Agustin kalea, 5 (Eibar)  
943 820 498

## Uztailean eta abuztuan hildakoak

- |   |  |   |
|---|--|---|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Arrate Aranguren Urkidi</b><br/>72 urte, uztailek 2</li> <li>• <b>Juan Manuel Hernandez Tabera</b><br/>77 urte, uztailek 5</li> <li>• <b>Julian Aranbarri Etxaniz</b><br/>81 urte, uztailek 6</li> <li>• <b>Imanol Mendikute Elorza</b><br/>92 urte, uztailek 11</li> <li>• <b>Maite Barruetabeña Aulestiarte</b><br/>61 urte, uztailek 19</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Guillermo Saez Alaña</b><br/>72 urte, uztailek 20</li> <li>• <b>Maria Asuncion Otaegi Iriarte</b><br/>67 urte, uztailek 22</li> <li>• <b>Maria Teresa Barrenetxea Garate</b><br/>85 urte, uztailek 23</li> <li>• <b>Lucio Bengoa Ruiz de Arbulo</b><br/>94 urte, uztailek 23</li> <li>• <b>Antonia Iriondo Elustondo</b><br/>88 urte, uztailek 28</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Mari Tere Iraolagoitia Mendive</b><br/>77 urte, uztailek 31</li> <li>• <b>Felicidad Martin Hidalgo</b><br/>84 urte, abuztuak 2</li> <li>• <b>Isidro Gorosabel Velar</b><br/>85 urte, abuztuak 10</li> <li>• <b>Miren Furundarena Egia</b><br/>86 urte, abuztuak 13</li> <li>• <b>Juan Muñoz Diaz</b><br/>73 urte, abuztuak 19</li> <li>• <b>Alicia Robles Sanchez</b><br/>93 urte, abuztuak 23</li> </ul> |
|---|--|---|



# ETXEBERRIA

## EHORZKETA-BEILATOKIA

**943 741 327 (24 orduz)**


**635 756 295**

**629 635 203**

Santa Klara, 16 - Elgoibar  
[info@funerariaetxeberria.com](mailto:info@funerariaetxeberria.com)  
[www.funerariaetxeberria.com](http://www.funerariaetxeberria.com)

Kutxak, trasladoak eta koroak.  
 Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.  
 Erietxe zentruetan zerbitzuak.





Eire Vila



### Jone Olaizola



**B**egi ertzean sortu eta itsasorainoko bidaia egin dezakete malkoek. Itsasoa gazia baita malkoak bezala, eta kantak dioenez, agian malko horiei esker gero itsasoa izango gara, auskalo.

Mediterraneo itsasorainoko bidaia izan da uda honetakoa. Bidaietan kontrako norabidean datozen pertsonak elkarrekin gurutzatzen dira eta topo egiten dute. Mutiko aljeriar batek eta biok topo egin genuen oinez nenbilen egun batean. Mutikoa gaztea zen, ingelesez hitz egiten zuen eta kamiseta bat, praka motzak eta oinetakoak besterik ez zeramatzan soinean, ez motxilarik, ez

sakelakorik. Itsasoaren beste aldetik iritsi zen, txalupaz. Urduri galdetu zidan ea polizia non zegoen. Azaldu nion handik hurbil herri txiki bat zegoela eta han topatuko zuela. Arraroa egin zitzaidan poliziaren atzetik ibiltzea; kontrakoa pentsatuko nuen lehendabiziko kolpean; baina ez, babes bila zebilen. Harrituta eta zer egin jakin gabe ea ondo zegoen galdetu nion eta hark baietz erantzun ondoren, nor bere bidea jarraitu genuen, hura polizia bila eta ni bainu bat hartzera. Gozagarri behar zuen bainu hura gazi sentitu nuen oso, eta Mediterranea aurrez aurre nuela pentsatu nuen zenbat malko ote zeuden itsaso zabal hartan isurita.

Izan ere, bidaia mota asko dago, eta bidaiatzea ez da beti polita. Ez da beti eroso, batzuetan min ematen du.

*“Mediterranea aurrez aurre nuela pentsatu nuen zenbat malko ote zeuden itsaso zabal hartan isurita”*






XI. URTEURRENA

*Nora Rey Nogales*

1998/10/18/ - 2008/08/11

***11 urte dira joan zinenetik  
eta oraindik zure izanak betetzen du gure bihotza***

Ama eta aita



*Luzio Bengoa Ruiz de Arbulo*

2019ko uztailaren 23an hil zen, 94 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Gure ondotik joan zara,  
baina beti izango zaitugu gure bihotzean.***

Kaskante baserrikoak



VIII. URTEURRENA

*Leire*

*Ugarteburu Gabilondo*

***Urteko egun guztietan  
bizi eta biziko  
gure gogo-bihotzetan  
maite hori!***

Etxekoak

2011 - 08 - 18

# ► Gremioen gida

## ARROZTEGIAK



Ermuaranbide, 12-14-16  
tel/fax. 943 743 116  
www.biena.eus  
info@biena.eus



# Ulazia

ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK  
Albitxuri industriagunea, 1-O/ 1-P  
943 740 547



# iraolagoitia

aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain Industriagunea, 9  
20850 Mendara  
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com

# IMAR

ARROZTEGIA

Olaso industriagunea, 17 beheka  
943 531 471  
609 054 978  
carpineriaimar@hotmail.com



Aroztegia Carpinteria

# ASIMA

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226  
650 026 631  
636 886 322  
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com

## ERREFORMAK

# ESTUDIOS ARRILLAGA

Erosario kalea, 15 beheka - Elgoibar

- Proiektuak eta erreformak
- Sukaldeak
- Gremioen koordinazioa
- Obren zerbitzu integrala

943 744 019  
605 713 168

## IGELTSERITZA

# A. Garate

Era guztietako  
igeltseritza lanak  
egiten aditua

angelmgarate@gmail.com  
Santa Ana kalea, 28 beheka - 2. zkia  
Elgoibar

610 226 651

## PINTURA

# BIOK

dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552  
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

## LEIHOAK

# LODOSO LEIHOAK

SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223  
lodosofj@gmail.com  
Tel.: 943 74 34 90

## ITURGINTZA

# PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA  
Pedro Migel Uruzuno, 8  
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565  
tienda@pagoagasa.com  
www.pagoagasa.com

BILTEGIA  
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279  
telefon@pagoagasa.com  
ELGOIBAR

# Fontanería Ibámar

ITURGINTZA

San Roke, 10-A, beheka B  
Elgoibar  
Floren Cid: 647 463 436  
ibamar@euskalnet.net

# ONGI

Iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11  
ELGOIBAR  
Tel.: 943 254 522  
Faxa: 943 254 523  
ongi@ongielgoibar.com  
www.ongielgoibar.com

# SANTANA

Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, beheka  
Elgoibar  
943 740 530 / 605 714 905  
santanaiturgintza@gmail.com

## ELEKTRIZITATEA

# CARRANZA,

ELEKTRIZITATEA

Uparitzaga, 10, 6.B  
Elgoibar  
karranza@gmail.com  
Tel.: 943 741 280  
Jose Luis: 626 555 999

# egoluz

ELEKTRIZITATEA S.L.

Raimon: 677 512 462  
Ego-Gain, 9 AC  
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345  
Pedro Migel Uruzuno, 14 beheka  
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697  
ego.luz@hotmail.com

## IZURRIEN KONTRAKO TRATAMENDUAK

# Hércules



658 710 898

- Aroztegiak
- Erreformak
- Igeltseritza
- Pintura

- Leihoak
- Iturgintza
- Elektrizitatea
- Izurrien kontrako tratamenduak